

## KOLKOTIK

Zentzunaren otsa:

*Bizitza, bizitza!*

*Ire erraia al duk utsa?*

Zertan diñostak ik, biotza:

*Ez pentsa, ez pentsa,*

*Ukazak jakintza?*

Nun duk gizonaren funtsa?

Hamlet'en loa ala ametsa?

Ala ez ote eriotz ondoren utsa?...

Adimen, gogo-min, bizitza:

Noiz arte duzute itza?

Gurutza:

Au zoritxarra!

Sufrimentua izan bearra

Gizonaren ikaskuntza.

Ikusi ez duenak sufritza,

Ez daki zer dan bizitza.

O!, bein bakarrik il al ba'litza.

OTSALAR

## SORTALDEKO IZARRA

Sortaldeko izar zuri!,

argi egidazu.

Belen aldera, otoi,

—beñola iru aztiak—

zuzendu nagizu.

Ba-dot griña leial bat,

danik biziena:

Josu'ren aurrean nik,

seaskari kulunka,

ustu nai barrena.